

LAUTADA IKASTOLA JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA 2017-2018 IKASTURTEA

Jantokia ikastolako familiek kudeatutako zerbitzua da eta haiei zuzenduta dago. Jantokiaren helburua eguerdiko orduetan seme-alaben elikaduraz eta zaintzaz arduratzea da.

JANTOKIAREN ANTOLAKUNTZA

- Bazkaria, ikastolatik kanpo egiten da, COCINA CENTRAL MAGUI S.L. enpresak hain zuzen eta zerbitzua emateko enpresaren langileak ditugu: sukaldaria eta monitorea.
- Haur Hezkuntzako umeei 12:45ean bazkalduko dute (ostiraletan ezik, Lehen Hezkuntzakoekin batera, 13:15ean, bazkalduko dutelako); Lehen Hezkuntza eta DBHkoek, 13:15ean. Asteazken eta ostiraletan, DBHko ikasleek 14:15ean bazkalduko dute.
- Hiruhilabetero aurreikusitako menuei buruzko informazioa bidaltzen zaie familiei.
- Jantokia noizean behin erabiltzen dutenek egun bat aldeztu aurretik (eguerdiko 13:00ak baino lehen) idazkaritzan jakinarazi beharko dute, baita dagokien ordainketa egin, idazkariarekin zehaztuko dute nola.
- Norbaitek zorraren bat ikastolarekin badauka ezin izango du jantokia erabili ordainketak eguneratuta izan arte.
- LH eta DBH-ko ikasleen familiei hilero txosten bat helaraziko zaie adierazteko nola bazkaltzen duten eta daukaten jarrera. Diziiplina arazo sortzen badira, familiei momentuan jakinaraziko zaie.
- HHko umeen familiei egunero emango zaie informazioa; horretarako HHko pasilloan kokatuta dagoen taula batean ohar bat jarriko da.
- Goizeko ordutegia dagoenean ikasleak jasotzeko ordua 15:00ak arte da. Ikasleren batek ordua baino lehen bakarrik irten behar badu guraso edo tutoreen baimen-agiria sinatuta ekarri beharko du.

- Jantokira ezin da ekarri etxeko janaria, ezta urtebetetzeetan ere (bizkotxoak, izozkiak ...) alergiak direla eta arazoak saihesteko.
- Jantoki zerbitzua Irailetik Ekainera izango da.
 - ❖ 2 eta 3 urteko umeak, egokitzapen-aldia behin bukatuta, geratu ahalko dira jantokian.
- Edozer jakinarazteko:
 - ❖ Ikastolako idazkaritzara bertaratuz edo deituz (945 300 215)
 - ❖ Idazkaritzan edo tutoreari ohar idatziaren bidez jakinaraziz

JANTOKIAREN ARAUAK

(* LH eta DBH ikasleentzako diziplina araudi espezifikoa dago)

- **GARBITASUNA**
 - ❖ Ikasle guztiak eskuak garbituko dituzte bazkal aurretik
 - ❖ Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleek beste mantala bat ekarriko dute jantokian erabiltzeko.
 - ❖ Bazkaldu ondoren eskuak eta hortzak garbituko dituzte. Ikasle bakoitzak hortzak garbitzeko pasta, hortzetako eskuila eta edalontzi txiki bat ekarriko ditu bere izenarekin.
- **ELIKADURA**
 - ❖ Ikasleak ezarritako menura egokitu beharko dira, zerbitzatutakoa janean. Helburua umeek denetarik jatea da, gustukoa ez badute ere, gutxiago jan arren.
 - ❖ Ikasleren batek dieta bereziren bat behar badu edo alergiaren bat badauka, medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko du. Baldintza hauetan dagoen umeren batek jantokira etortzeko azken orduko beharra badu ezin izango da geratu, dieta bereziak 48ordu baino lehenago eskatu behar baitira.
- **PORTAERA**
 - ❖ Ogia, ura eta janari hondarrak beste ikaskideei botatzea debekatuta dago.

- ❖ Ikasleak, esaten zaien tokietan eseri beharko dira. Tokiak finkoak izango dira eta bakarrik begiraleen baimenarekin lekuz aldatu ahal izango dira.
- ❖ Jantokiko sarrerak eta irteerak modu egokian egingo dira.
- ❖ Mahai tresnak eta zapiak bazkaltzeko besterik ez dira erabili behar
- ❖ Tonu egokian hitz egingo dute, oihukatu gabe.
- ❖ Komunera joateko begiraleari baimena eskatuko zaio.
- ❖ Tresna eta material guztiak errespetuz erabiliko dira. Gaizki erabiltzeagatik apurtzen badira ikasleak izango dira erantzuleak
- ❖ Ikasleak langileak errespetuz tratatu behar dituzte (sukaldaria, begiraleak ...), irakasleak izango balira bezala. Beraiek esandakoa bete behar dute.

- **OROKORRAK**

- ❖ Jantokiko ordutegian ikastolatik atera behar badute, gurasoak etorriko dira haien bila edo etxetik, haiek sinatutako egiaztagiri bat ekarriko dute. 15:00etan baino lehen itzultzen badira, sarrera nagusitik sartuko dira.
- ❖ 2 urteko umeen irteera malgua izango da; 14:00tik aurrera edozein momentutan etor daiteke haien bila.
- ❖ Berokiak, mantalak, jakak, eta abar esekitokietan zintzilikatuko dira; ez dira mahaian gainean utziko.
- ❖ Ikasleren batek, medikuak bidalitako medikazioren bat hartu behar badu, gurasoan idatzitako baimenarekin emango zaie.

- **AISIALDIA**

- ❖ Jolas arriskutsuak debekatuta daude, baita pertsonen segurtasun fisikoaren aurka doazen ekintza guztiak ere.
- ❖ Jantokiko orduetan ere ezin dira mugikorrak, MP3, MP4, bideo jokoak, e.a. erabili.
- ❖ Ezin dira litxarkeriarik eta kanpotik ekarritako jakiak jan.